

AZPEITIA / Pello Añorga ipuin kontalaria izan zen atzo liburutegian

Atzo arratsaldean, ipuin kontalaria izan zen Udal liburutegian. Atzokoan, Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako haurren txanda izan zen eta gustura egon ziren Pello Añorgaren ipuinak entzuten. Hilaren 22an ere Pello Añorga ipuin kontalaria izango da Azpeitiko Udal Liburutegian. Ekitaldia 18:00etan hasiko da eta, antolatzaileek jakitera eman dutenez, ordubeteko saioa izango da, ohikoa den bezala. Bigarren saio hau, Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako eta bigarren mailako haurrentzat izango da. Hilak 29an, berriz, Lupe Lekuona ipuin kontalaria izango da eta honen saioa Haur Hezkuntzako hurrei zuzendua izango da; lau eta bost urteko haurrentzat hain zuzen ere. Datorren hilerako ere hainbat saio antolatu dituzte: lehenengo bi saioetan ipuin kontalari bera izango da, Maite Franko; eta hirugarren saioan, berriz, Amaia Zinkunegi. Azaroak 12an, 19an eta 26an izango dira saioak.